

Liburuak

KRITIKA

2011ko uztaldia

Helduen literatura | POESIA

Igor Estankona

PASAIako UDALAK 2011n antolatutako XVI. Poesia lehiaketako uzta bikoitza argitaratu du oraintsu Berminghamek, eta Ekhiñe Egigurenen *Hirigrafiak eta Paisaiagramak* –lehen sariduna– zein Aitor Albisturren *Sonetoen Erresumatik* –bigarren saria– gozatu ditzakegu orain, euren arteko desberdintasun eta kointzidentziak ikusiz eta, uneka, luma arras bestelako biren bide ezberdinak kausituz.

Ekhiñe Egigurenek hiriko desertutik hitz egin digu, denborak dena berdindu baino lehenagoko testigantza utzi nahirik, sendotasuna eta irudi hauskorrak konbinatzen dituen idazkera batekin: “Poema bat idatzi nahi nuke,/ poema ikaragarri bat; beldurrez zoratuko nauena,/ ederrak zauria egiteraino”. Estetika errealistatik abiatuz, beraz, donostiarrak alegiazko munduak iritsi nahi ditu, plastika berezi bat deskubritu. Idazleak deskripzioa –batez ere urbanoa– egiten duen bitartean, irakurleak

zeozer gehiago barruntatzen du: gizakiaren zorion-egarri tristeaz ari da. Bizi pozaren eta malenkonian arteko poemategi bat atara zaio, ukitu surrealistaduna. Behar bada larregi hitz egiten du sorkuntza-

prozesuaz, larregi poesiaz, eta batzuetan ahaztu egiten zaio hain zuzen poesiaren potentzial guztia profitatzea. Hiririari egindako erreferentziak, Lisboako kale literaturan behin eta berriz erabiliak, Edvard Munchen oihua... iruditu zait apur bat jakinekoea, arrisku gutxikoa.

Dena dela, Ekhiñe Egigurenen *Hirigrafiak eta Paisaiagramak* osatu egiten du Aitor Albisturrek *Sonetoen Erresumatik* sinbiotikoarekin. Kasu bietan idazle-kontzientzia handia dago, esate baterako, Errenteriakoak ohartarazten digunean ez pentsatzeko gezur leundua denik “poesia onak bakarrik/ eralda dezakeela mundua”. Baina, aurrekoaren kontrara, mamiari uko egiten ez dion arintasun bat lortu du Albisturrek ematea bere erritmo biziko poemei, betierekoa enegarrenez esan arren, elegante esanez: “Utzi orduko amaren sabela,/ badakit tragedietan lehena/ munduratu izana bera dela...”.

Gauza astunez Newtonen astuntasunaren legea ahaztuz idazten du, natural. Zehaztasun harrigarriarekin deskribatzen ditu gaurko gezurrak, eta hizkuntzaren bitartez mozorroa kendu hitzei eurei. Errealismoa presente dago Ekhiñe Egigurenen lehen lanean bezala, baina errealismo konkretuago bat da hau, unibertsalagoa, hemengo zein nahinongo ametsen xerka zabaltzen dena, norbere baitako amesgaiztoetan itxita geratu beharrean: “Logabetasunaren sukarrean,/ ametsak tokirik ez dutenean,/ mundu bat galtzen da gau bakarrean”.



Pasaia Hiria poesia sariak.
Ekhiñe Egiguren / Aitor Albistur.
Bermingham, 2012.



ILUNABARREAN

07.27 22.00 Kontzertua. **Audience.** *Amerikanuak*

BISITALDI GIDATU BEREZIAK

08.02 19:00 *Premiaren Garaia*
Gidari: **Blanca de la Torre**
(Artatzailea)

08.23 19:00 *Denbora eta Premia (Guernica)*
Gidari: **Daniel Castillo**
(ARTIUMen Zuzendaria)

Argibideak eta erreserbak: 945.20.90.20

Artium

ikus programazio osoa:

www.artium.org